



### **3. LERROA: Birgaitze integral eta efizienterako erkidegoaren obrak**

#### ***Zer obra finantzatzen dira?***

Halako esku-hartzeetan, gutxienez, energia-efizientzia, irisgarritasuna eta suteetatik babesteko segurtasuna hobetzeko jarduketak egin behar dira, oro har eta aldi berean. Kanpoko bizigarritasuna hobetzeko jarduketak ez dira nahitaezkoak.

- **Energia-efizientzia hobetzea:** berokuntzaren urteko energia-eskaera gutxienez % 50 murrizten duten inguratzailleko jarduketak; energia primario ez-berriztagarriaren kontsumoa gutxienez % 20 murrizteko jarduketak (esaterako, eguzki-kolektoreak instalatzea); monitorizazio-sistemari lotutako energiaren kudeaketa aurreratuko sistemei laguntzea (etxebizitzan % 80, gutxienez).
- **Irisgarritasuna hobetzea:** igogailuak instalatzea, eskailerak aldatzea barne; igogailuak zero kotarako egokitzea eta/edo neurriak egokitzea (irisgarritasuna); ibilbide irisgarrien bermea; zentzumenezko irisgarritasuna hobetzea.
- **Suteetatik babesteko segurtasuna hobetzea:** detekzio- eta alarma-sistemak, ebakuazio-sistemak (larrialdiko argiteria), itzaltzeko sistemak (su-itzalgailua eta tutu lehorra).
- **Kanpoko bizigarritasuna hobetzea** (aukerakoa): balkoiak eta terrazak zabaltzea edo luzatzea.

#### ***Zer gastu ordaintzen dira?***

- Ordainsari profesionalak.
- IET idazteko ordainsari profesionalak.
- Obren gauzatze-kostua; ezinbestekoa da diruz lagunduko diren jarduketetarako, zergak kanpo. **Proiektua baimendu ondoren eta obra amaierako ziurtagiriak adierazten duen data baino lehen gauzatuta, ziurtatuta eta fakturatuta egon beharko dute.**



### ***Zer betekizun dira beharrezkoak?***

---

- Jarduketak beraien kontura egiten dituzten jabeen erkidegoak.
- Eraikinen eraikuntza-entresak, errentariak edo emakidadunak, edo horietako batzuk, birgaitze-jarduketak egin ahal dituztenak. Horiek egiaztatzeko, eraikinen jabetzari buruzko indarreko kontratua edo administrazio-ebazpena aurkeztu beharko da.
- Jabe, errentari edo gozameduna den edo eraikineko etxebizitzaren bat erabiltzeko edo aprobetxatzeko legitimatzen duten eskubide errealeen edo beste batzuen titularra den pertsona fisikoak edo juridikoak, pribatuak edo publikoak, ondasun-erkidegoak edo bestelako unitate ekonomikoa edo bereizitako ondarea. Horietakoren bat bada, irisgarritasuna sustatzeko lerro berezia eskuratzeko aukera izango dute, eta 1. eta 2. lerroetako pertsona indibidualentzako betekizunak bete beharko dituzte.
- Eraikinak:
- Familia anitzeko bizileku-eraikina, gutxienez 4 etxebizitza. 1980 baino lehenagokoa.
- Arautegiaren arabera hirigintza- eta egitura-egokitzapena ditu.
- Bizigarritasuneko gutxieneko baldintzak betetzen ditu, abenduaren 30eko 317/2002 Dekretuak xedatutakoaren arabera (IV. eranskinean).
- Gainera, honako gabeziak izan behar ditu: D mailako edo beheragoko energia-efizientzia. Irisgarritasunari dagokionez, ez du igogailurik, edo ez da irisgarria/erabilgarria, edo ezin du bermatu zero kotako irisgarritasuna bide publikotik. Horrez gain, ez ditu betetzen suteetatik babesteko segurtasunari buruzko oinarrizko dokumentuan jasotako betekizunak eta/edo ez du suteen kontrako detekzio- eta alarma-sistemarik.

### ***Zer laguntza eskuratzeko eskubidea dut?***

---

**Itzuli beharrik gabeko dirulaguntza:** laguntzaren zenbatekoak eta ehunekoak handitu egingo dira esku-hartzea kokatzen den azpillerroaren arabera:

- 1. azpillerroari dagozkionak: % 2, aginduan jasotako tauletan adierazitakoaren aldean.
- 2. azpillerroari dagozkionak: % 1, aginduan jasotako tauletan adierazitakoaren aldean.



Gainera, esku-hartzeko atari kopuruaren arabera, laguntza-lerro horretarako ezarritako zenbatekoei eta ehunekoei ehuneko zuzentzaileak aplikatuko zaizkie:

- Lau atari edo gehiago: % 3, tauletan adierazitakoen aldean.

- Hiru atari: % 2, tauletan adierazitakoen aldean.

- Bi atari: % 1, tauletan adierazitakoen aldean.

**Mailegu kualifikatuak:** aurrekontu babesgarriaren % 100 izan daitezke, Eusko Jaurlaritzak edo beste administrazio batzuek eskainitako laguntzak kenduta. Jarduketa babesgarriek irisgarritasun-obrak barne hartzen badituzte, aurrekontuaren zati horretarako, eta kontzeptu horregatik emandako laguntzak kenduta, zenbateko bat zehaztuko da; mailegu bidez estali daiteke hori, eta mailegua, bada, irisgarritasuna sustatzeko lerro bereziaren onuradunek eskura dezakete. Urteko interes efektiboa % Okoa izango da maileguak irauten duen artean (tasa aldakorra, finkoa eta mistoa).

### ***Eta nola aurkeztu dezaket eskaera?***

---

#### [Esteka honetan](#)


#### **Eta gogoratu:**

Halako esku-hartzeetan, gutxienez, energia-efizientzia, irisgarritasuna eta suteetatik babesteko segurtasuna hobetzeko jarduketak egin behar dira, oro har eta aldi berean.

Aukeran, etxebizitzaren kanpoko bizigarritasuna hobetzeko jarduketak aurreikus ditzakete proiektuek.

EITaren txostenak 1., 2. edo 3. graduko obrak jasotzen baditu, gabezia horiek konpontzeko obrak egin beharko dira esku-hartzean. Gauza bera egin beharko da etxebizitzaren batek ez baditu gutxienerako bizigarritasun-baldintzak betetzen.

Jarduketak 30 hilabeteko epean bukatu beharko dira, dirulaguntza emateko ebazpena jakinarazten den egunetik.

Baliteke [finantza-lankidetzako hitzarmena](#)rekin bat egitea eta Dekretuaren finantza-baldintzen laburpen-taulako [hasierako interes-tasek](#)  eskain ditzaketen abantaila eta bermeez baliatzea. [Finantza-erakunde sinatzaileen zerrenda](#).